

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 6277

*1457/2021 EBAZPENA, azaroaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Carolina Ortega Ortega andrearen izendapena aldatu den eta Zuzendaritza Nagusiko Finantza eta Aurrekontuen zuzendariorde izatera igaro den.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 24ko 230/2006 Ebazpenaren bidez, Carolina Ortega Ortega andrea izendatu zuten Erakunde Zentraleko Aurrekontuak Kudeatzeko zuzendariorde (2006ko maiatzaren 25eko EHAA, 98. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 14ko 32/2021 Ebazpenaren bidez, Carolina Ortega Ortega andrearen izendapena aldatu zen, Zuzendaritza Nagusiko Finantza, Aurrekontu eta Erosketen zuzendariorde lanpostua bete zezan (2021eko otsailaren 5eko EHAA, 26. zk.).

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2021eko urriaren 28ko Erabakiaren bidez, Erakunde Zentralaren egitura aldatzea onartu zen, Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzaren berrantolaketari dagokionez, eta Finantza, Aurrekontuak eta Erosketen Zuzendariordearen izena aldatu zen; aurrerantzean, Finantza eta Aurrekontuen Zuzendariorde deituko da.

Aurrekoa ikusita, aldatu egin behar da Carolina Ortega Ortega andrearen izendapenaren izena; beraz, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legea onartzen duen ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak eman-dako eskumenen babesean, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Aldatzea Carolina Ortega Ortega andrearen izendapenaren izena; aurrerantzean, Zuzendaritza Nagusiko Finantza eta Aurrekontuen zuzendariordea izango da.

Bigarrena.– Ebazpen hau indarrean jarriko da dataren hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.